


ttipi-ttapa

1993.eko Ekainak 17

112. zenbakia

dohain banatzen da



**PILOTA MUNDUA
BERRITZEN ARI DA**



EZKALO

JOSE ANTONIO ELIZONDO Jauna

INFORMAZIOA: 45 15 18 Tfnoan. • DONEZTEBE



BERROETA

Borda 19.000 m²ko belagiarekin eta 50 m²ko hiru planta. Moldaketak behar ditu 3.100.000 pzta.



LEITZA

Astebururako borda-aterpea, lorategi txiki batekin. Herritik 500 metrora eta bertara ailegatzeko bide onarekin. 2.850.000 pzta.



JACA

80 m²ko apartamendu mobleztatua garajearekin salgai. 10.500.000 pzta.



ZUBIETA

120 m²ko pisua, udako etxaldean, egongela su bajuarekin, bi gela, bainua eta terraza. 20 m²ko garajea eta 300 m²ko baratza. Hegoaldera begira. Prezioa negoziagarria.



LESAKA

Antojenea baserria, bi familiendako egokia (100 m² planta bakoitzeko). Guztiz moldatua, kalefakzio, terraza, garage eta 60.000 m²ko lur eremuarekin. 16.000.000 pzta.



LEITZA

Mobleztatutako pisua, Huarte Gotzaia karrikan seigarren pisuan. Aszensorearekin. 2.850.000 pzta.



BERA

Portula baserria, berriki moldatua. 3.400 m². Bi familientzako edo ostalaritzarako egokia. 55.000.000 pzta.



Zure ametssetako etxea eraikiko dizugu, hilabete eta egun batean. Guztiz egurrezkoa, hezeta-suna, pipiak eta suaren kontrako tratamenduarekin 1.500.000 pztatik goiti.

EZKALOk
besta zoriontsuak
opa dizkizue

non-zer

4 AGENDA Beharrezko telefonoak eta hurrengo alea argitaratu arte inguru hauetan gertatuko diren bilera, erakusketa, ibilaldi, ikastaro, musika kontzertu etabarren agenda.

7 HONTAZ ETA HARTAZ

8 IRAKURLEAK MINTZO

9/25 HERRIZ HERRI

Herrietako berriak: Bortziriak, Malerreka, Sunbilla, Bertizara-na, Baztan, Zugarramurdi, Urdazubi, Sara, Leitza, Goizueta... Doneztebeko bestei buruzko Gehigarri berezia.

26 ERREPORTAIA: «Esku pilota, iraultzaren atarian» 'Asegar-ce' enpresaren sorrerak hankaz goiti jarri du esku pilota profesio-nalaren mundua.

Oskar Txoperena

28 HAUTESKUNDEAK 93: «Abertzale eta ez abertzaleen ar-teko aldea inoiz baino tikiagoa» Ekainaren 6ko hauteskun-deen ondotik.

Joxemanuel Irigoien

30 MERKATU TTIKIA

ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

Lege Gordailua: NA-1324/85
Tirada: 5.500 ale

Herriko Etxeko Plaza, 1
31780 BERA
Tfnoa.: 63 11 88
Faxa: 63 12 91

Erredakzio arduraduna: Josemanuel Irigoien **Publizitate arduraduna:** Miren Karmele Tolosa **Erredakzio taldea:** Aitor Arozena, Patxi Larretxea, Pello Apezetxea, Edurne Rekondo, Bittori Telletxea **Ale honetan parte hartu dute:** Oskar Txoperena, Pello Apezetxea, Marta, Mirari, Txema Aldabe, Ixabel, Josune, Alizia Olaizola, Iban Isasi, Juainas, Koro Irazoki, Margari, Pello Etxegia, Daniel Martiarena, Txema Urrotz, J. Igarabide, Pablo Mendiburu, Juana Mari, Mixel, Jacqueline, Esteban Arozena, EHNE Nafarroa, Josetxo Susperregi eta Mattari-k. **Argitaratzailea:** *ttipi-ttapa*. **Laguntzaileak:** Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Nafarroako Gobernua....

Inprimategia: Gertu Kooperatiba Elkarte (Oñati)

ttipi-ttapa aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzunkizunik.

Beharrezko telefonoak

SOS Nafarroa / Urgentziak...088/061

OSASUN ZENTRUAK

Elizondo.....452367 / 580235

Doneztebe450300

Lesaka.....637428 / 637336

Leitza510248 / 510573

KONTSULTAK

Arizkun453039

Gartzain580451

Oronotz-Mugaie592024

Ituren450183

Sunbilla450283

Goizueta514067

Igantzi637755

Arantza634131

Bera.....630929 / 630036

Etxalar.....635105

Urdazubi.....599130

ANBULATORIOAK

Irun630264/621106

OSPITALEAK

Irungo ospitalea614600

Nafarroako ospitalea102100

SSko urgentzi zerbitzua246750

Virgen del Camino

erresidentzia109400

Gurutze Gorria.....226404

ANBULANTZIAK

Oitz450242/450805

DYA

Lesaka (larrialdiak).....(943) 464622

Doneztebe (larrialdiak).....171717

FUNERARIA

Lesaka.....637404

Elizondo580924

SUHILTZAILEAK

Oronotz-Mugaie592044

GARRAIOAK

Bidasotarra630279

Baztanesa580129

Leitzaran515018

HIRUGARREN ADINARENDAKO ZENTRUAK:

Elizondo580730

Lesaka.....637154

Bera630261

ABERIAK:

Iberduero450335/450336

W Botikak

► **Ekainaren 19-20an.** Lesaka. Narbarte eta F. Lezaun (Elizondo).

► **Ekainaren 26-27an.** Etxalar, Sunbilla eta J. Iturralde (Elizondo).

W Gaupasak

► **ZUGARRAMURDI**
Ekainaren 19an, gaupasa lezeetan: Dantzaldia *IZAN* taldearekin. 2etan *Akelarre* antzerkia eta Iturengo ioaldunak. 2'30etan *Kepa Junkera* eta *Garik*.

W Bestak

► **DONEZTEBE**
Ekainaren 28tik uztailaren 4ra (ikus xehetasunak erdikaldeko gehigarrian).

► **ARIZKUN**
Ekainaren 23tik 28ra (ikus xehetasunak 20. orrialdean).

► **ERRATZU**
Ekainaren 28tik 30ra eta uztailaren 2tik 4ra (ikus xehetasunak 20. orrialdean).

► **AURTIZ**
Ekainaren 26an, Aurtizko Eguna. 11etan *Mikel Markez* eta *Jon Bergaretxe*.

W Deiak

► **BERA.** ekainaren 24ean, asteazkena, arratsaldeko 8etan LAINOPE Ingurugiro Taldearen bilera Gure Txokoan.

W Dantzaldia

► **LESAKA**
Ekainaren 20an, arratseko 7.30etan OS-TADAR taldearekin Plaza Zaharrean.

W Bota bertsoa**Jon SILVEIRA**

Bortzirietako Bertso Eskolakoa

Gaia: Futbol ligan, nor faborito?**Neurria:** Hamarreko Haundia

Ligako faborittoa zein den gutziz zaila erratea Barça denetan onena dela dugu askoren ustea Madrid ere hor Barcelonari sortu nahiean kaltea baina bi hauek izana dute irabaztearen suertea ta aurtengoan Depor txapeldun nahiko nuke izatea.

Deportivo sorpresa emanez lenengo ekin ta ekin ta lidergoari eutsi zioten eginaz hainbat ahalegin Madrid ta Barcelonaren aurka bazuten nahiko zeregin esateko asko dago eta bukatu nahi dut honekin euskaldunik ez balegoke ez zela izango berdin.

AGENDA

Bertsoak

► ARIZKUN

Ekainaren 24ean (ortzeguna), eguerdiko 12etan herriko plazan. **Bertsolariak:** Jon Lopategi, Bittor Elizagoien, Unai Iturriaga eta Gregorio Larrañaga (Mañukorta).

► ERRATZU

Ekainaren 29an (astearte), arratsaldeko 8etan, herriko plazan, bertsolariak.

Antolatzailea: Baztan Balleko Udala

Laguntzailea: Nafarroako Gobernua.

Kantaldiak

► ARIZKUN

IRIGOIEN ANAIK

Ekainaren 27an (igandea) arratseko 9etan, herriko plazan.

Antolatzailea: Baztan Balleko Udala

Laguntzailea: Nafarroako Gobernua.

Gastronomia

FAISANA EHIZTARI ERARA

Osagaiak 4 lagunendako:

10 kuilare oliba olio, azenario bat, tipula erdi bat, porru bat, 2 baratxuri eta 50 gr. urdaia

Tapa duen lapiko batean, olio, barazkiak eta urdaia 10 minutuz jarri sutan; po-



Mari Carmen GARMENDIAk emana - Ugaldenea, ARESO

liki poliki, gainean jarri faisana eta mantxo mantxo beste

45 minutu eduki suan. Kuilarearekin maiz busti faisana. Egina dagoenean faisana atera platera. Gelditzen den berdurari koipea (3/4) kendu eta txinotik pasa. Hau eginda gero jarri beste kazo batean. Oso lodia gelditu bada 10 kuilare salda bota eta fina gelditu bada 2 kuilare irina bota. Puskatu faisana lau puskatan eta saltsa beroa bota gainera.

Baserriko feria



► ZERRIKIA

•Zerrikumea (20 kilokoa): 3.600 pza. **Zerri gizena** (95-100): 163 pza/kilo **Zerramak:** 60-80 pza./kilo bizirik.

► BEHIKIA

•Aretze gizenak:
Idixkoak: Pza/kg. Kanal Extra.....570
1.koa.....540
2.koa.....520

Urruxak: Pza/Kg. Kanal Extra.....585
1.koa.....555
2.koa.....535
Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 Kg. dituzten urruxentzako.

•Behi zaharrak:

Behi nabar gizena: 370 Pza./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 420-450 Pza./Kg. Ka-

nal.

•Aretze ttikiak

(15 egun inguru):

Nabarrak: urruxak 18.000 artean eta idixkoak 32.000 Pza. artean.

Mestizoak: urruxak 32.000 artean eta idixkoak 44.000 Pza. artean.

Datu-iturria: EHNE-Nafarroa

J. M. ANDUEZA

✕ Sua mozteko atea

- Metalikoak
- Egurrezkoak
- Kristalezkoak
- Korrederak.
- Segurtasunekoak

✕ Garajerako edozein motatako atea, neurrira eginak

- Automatikoak eta eskuz ireki beharrekoak

Tfnoa eta Faxe: 630854 - BERA



- Diskoak,
- Metodoak,
- Musika-Tresnak,
- HI-FI soinu,
- Soinu Profesionala,
- Ekipoen Alokairua...

W 11 galdera ilabur

W Zinema



► Teresa Mindegia

Doneztebeko Maylin ostaturkoa

► **Lehengo bestak ala oraingoak?** Nik uste oraingoak.

► **Edan, orain gehiago edo guttiago?** Lehenago gehiago.

► **Tabernak, zertarako? Ligatzeko...** Zerbait hartzeko.

► **Zirikatzekotan norbait, zein?** Nahai-go gazteak, ongi pasatzen dut..

► **Nola hobeki, erdaraz ala euskaraz?** Batzuekin erderaz eta bertzeekin euskaraz

► **Zer edaten da gehien gaur egun?** Kalimotxo eta zerbeza limonarekin.

► **Mozkorrak nola despatxatzen dituzu?** Nik bere lagun bidez.

► **Zer ez zaizu gustatzen lan honetan?** Bainuak garbitzea, ja,ja,ja,

► **Jendearekin tratatzeko, zer behar da?** Amabilidadez eta serbizio ona.

► **Atsaldeko 7ak ala gaueko 2ak?** Gaueko 2ak.

► **Tabernatik bizi daiteke?** Lan pixkat egiten baduzu, bai.

► Jurassic Park Steven Spielberg Estatu Batuak-93

Inoiz baino indar gehiagorekin dinosaurioak datoz. 200 miloi urte pasa dira desagertu zirenetik, nola, ongi jakin gabe enigma eta hutsune aunitz utzirik haien bizimoduari buruz.

Jurassic Park urtea izanen da aurtengoa. Steven Spielberg-erreneskutik etorriko zaizkigu udako azken aldera: dilofosaurio, velociraptorrak...

E.T. eman omen zuen zinemaren historian dirudik gehiena eta Spielberg-erri fama haundia. Orain egin duen



Steven Spielberg-ek negoziarako bertze bide bat ireki du *Jurassic Park*-eko "bitxoekin"

honekin konparatuz hagitx motz gelditzen omen da *ET*.

Jurassic Park presupuestoa mila milioi dolarretik goitu omen da. Hollywoodeko azken urtetako krisia filma honekin errekupe-ratuko dela diote.

Ordenagailu

bitartez asmatu-tako azken trukoak, azken teknologia, efeko berezi harrigarriak. Hauze izanen da *Jurassic Park*.

Crichton izan zen nobelagilea, ondotik paleontologo batzuen moldaketak. «Industrial Light and Magic» fabrika-

tik atera dira pertsonaiak edo bitxoak, bertako langileak izituak gelditu omen ziren egiazko dinosaurio hauekin.


M i l a k a , bideojoko, kamiseta, txapel, kro-mo eta txapa erruz egonendire salgai udan.

MARIANO

OKANE

- Haragi
- Janari-izoztu
- Enbutido
- Jogurt...

Kanttonberri 4,
Tfnoa: 63 00 18
BERA



MALDAERREKA S.A.

FUNERARIA ZERBITZUA

Bittiria karrika -Tfnoa: 637404- LESAKA

TXOKO erretegia

Bazkari, afari eta gosariak

ITUREN - Tfnoa: 45 04 91


LEGARRA

- PAPERTEGIA • TABAKOAK •
- LIBURUAK • OPARIAK •

ZERBITZU BERRIAK

- ☞ A-3 eta A-4 fotokopiak
- ☞ Inprenta lanak enkarguz
 - ☞ Kautxuzko zigiluak
 - ☞ Kartelak eta fakturak
 - ☞ Enkuadernazioak...

Legarra 9, © 637030 - LESAKA



Belateko tunelaren lanak berriki adjudikatu zaizkio enpresa talde bati. Lanak bi urtetan bukatuak egonen dira eta 2.872 milioi pezetako aurrekontua izanen du. Tunelaren luzera berriz, 2.887 metrokoa izanen da.

Lekunberritik Donezteberainoko errepidea moldatzeko 245 milioi

245 milioi pezetako dirutza inbertituko du Nafarroako gobernuak Lekunberritik Doneztebera Leitzatik barrena doan errepidea moldatzeko. Diru honetatik 65 milioi aurreten gastatuko da Doneztebetik Zubietarainoko bidea moldatzen, 130 mi-

lioio datorren urtean eta gainotzeko 50 milioiak 1995ean. Karreterari 5 metro t'erdiko zabalera emanen zaio, galipota bi kapa botako dira eta bertze hainbat hobekuntza egiteko asmoa dago. Iturongo trabesia (400 metro) ere hobetuko da.

Nekazariendako ikastaroak antolatu ditu ITGk uztailetik azaroa bitarte



Ikastaro hauetan, Nafarroako iparraldean bizi diren nekazari eta abeltzainak parte hartu dezakete

Nekazari eta abeltzainek beraien iharduera motak zabaltzeko dohai-neko ikastaroak antolatu ditu ITGk, uztailean hasita azaroa bitarte. Bertzeak bertze, fruitu txikien laborantza, senda-belarrak, erlezaintza, mintegiak, mermelada eta pattrarren fabrikazioa, mendiko gidariak, nekazaritza eta ingurugiroa, mendiko ze-

rriak, nekazaritzako mekanika eta soldadura, ahateen gizentzea bezalako ikastaroak emanen dira. Argibideak eskatzeko edo izena emateko Iruñako 278011 telefono-ra deitu behar da, kontutan hartuz ikastaro bakoi-tzean pertsona kopuru mugatua egonen dela, ahalik eta hobekien ikasi ahal izateko.

INFORMAZIOA:

- Nominak
- Aseguro Sozialak
- Lan-kontratu bonifikatuak
- Enpresa berrien sortzea
- Diru-laguntzak
- Errenta Deklarazioak
- Kontabilitateak

ARTEKARI S.L.

ASESORIA FISKAL ETA LABORALA

KONTSULTAK, AINTZINETIK ORDUA ESKATUZ

LESAKA:

- Asteazkenero, goizeko 10etatik arratsaldeko 6etara.
- Non:** MALDAERREKA S.A., Bittiria 6, Tfnoa: 637404

IRUÑEA:

- Bulego Zentralean: ARTEKARI S.L., Tfnoa: 17 55 40
- Non:** Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.



DONEZTEBEKO UDALAK EZ DU LAXO FINALA NAHI

Baztan-Errekako Laxo txapelketaren finala ez da aurtan Doneztebeko "Bear Zana" plazan jokatu, udalak baime-nik ez duelako eman.

Laxo Elkartek finala uztailaren 4ean Doneztebeko plazan jokatzearabaki zuen eta udalari horrela adierazi zion. Baina udalak egun horretan plaza erabiltzea debekatu du, herriko bestak direla eta, kioskoa kentzea ezinezkoa dela erranez.

Laxo Elkartea eta herriko jendearen ustez, udalak finala jokatzeko emandako arrazoia ez da arazoa, beraiek nahi badute kioskoa erraz kendu daitekelako.

Laxo finala bes-tetako ikuskizunik ederrena izan zitekeen: jendetza gehien bilduko zuena, udala eta publikoa-erentzat dohainik, igande eguerdiko ospakizun bakarra eta herriari ospe handia ematen diona. Ikus-

kizun eder honi Doneztebeko udalak ezetza eman dio. Baztan-Errekako txapelketan garaipen gehien lortu duen herriak, publiko gehiena bildu eta aurtan hiru talde plaza-ratu dituen herriak, ez du hau merezi. Beraz, penagarria.

Laxo Elkartearen helburu nagusia pilotaren modalitate-rik zaharrena kon-tserbatzea eta zabal-tzea da. Baina Baztan Errekako udalek kirol, kultur eta his-toriarekin harremana duen altxor hau kon-tserbatzeko trabak jartzen badituzte, be-rriz ere hilko zaigu.



Tiburcio Arraztoa
Laxoa Elkartearen kide
15.777.666

ERRAN EZ ZENUENA

Nafarroako egun-kari batean agertu-tako EUE-EAk Eli-zondon buruturiko mitinari buruzkoa, artikuloak erabat ha-rritu gintuen; batez ere Karlos Garaiko-

etxearen baieztape-nak. Jakinen duzun bezala, deklarazio hauek Jarraik atera-tako kartelaren on-dotik zetozen.

Gure helburua kartel honekin ETB-ko profesional ba-tzuek egiten duten desinformazio lan lotsagarria salatzea zen; mediku asisten-tzi ezagatik nafar ba-ten hilketa, nola ber-tze gazte batek atze-rritar okupazio inda-rrak jaurtituriko go-mazko pilota baten eraginez jasandako zauri larriak bezalako berriak ixilduz. Ga-raikoetxea giza-es-kubidetaz mintzatu zen. Baina antza de-nez zure memoriak huts egiten du, edo ez du gogoratu nahi iza-ten edozein egunez guardia zibilekin aurki gaitezkeela, ha-rat-hunet dabiltze-lako prepotentzi eta harrokeri osoz; gaz-teok abertzle senti-tzeagatik sarri meha-txatuak, kolpatuak eta irainduak garela-rik. Baina ziur ez zaizula zuri inoiz horrelakorik gertatu. Ezin dira guardia zi-

bil eta polizia nazio-nalak sekulan aurre-jarri gazte nafarrei egindako ekintza kriminaletan, beren ideologia edozein izanik ere.



Baztango Jarrai (KAS)

IBAN ISASIRI ERANTZUNEZ

Iturengo alkate bezala eta EAren udal taldearen izenean, 110. *ttipi-ttapan* Iban Isasik sinatutako ida-tziari erantzunez, honako hau argitu nahi nuke:

1. Plenoan hartu-tako erabakiek ko-munikabidetan ager-tzeko inportantzi na-hikoa dutela uste dut, baina iturri fidaga-rietan oinarrituz eta ez uste edo komenta-riotan.

2. Onartu behar-ko duzu Iban, zure erruainformazio txar bategatik eta "interesa-tutako" berri bat ateratzeko prisagatik etorri zela eta ez ple-noan egindako ko-mentarioengatik.

Hauei erreferentzia egiten diezu justifi-katzeko, baina ez dute azkenean hartu-tako akordioarekin bat egiten.

3. Mozioan ba-zeuden, nere ustez, legalak ez ziren pun-tuak, gazteak solda-duska ez egitea bul-tzatzea edo udalak Defentsa ministeri-tzarekin ez kolabora-tzea bezala. Halere, akordioaren legalta-sunaz, alkate bezala egin nuen galdera bertze kontzejal bati zuzendu nion, Ibanen abizen berdina due-nari, sesioaren bertze puntu batean legeak dioena betetzeko obligazioa gogora-tzen bait zidan eta puntu honetan mo-zioa apoiatzen zuen.

Ibaneri, akordio bat publikatu aintzi-netik plenotan per-sonalki edo aktak publikatzerakoan in-formatzea eskatuko nioke, zuzenketak eta polemikak ebitatze-ko.



Jose Iparragirre Altamira
72.609.707

* Zure ingurua klase guztiko insektuz (xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi-xagutxo garbitu nahi baduzu, deitu! Gu arduratuko gara horretaz!

BERA
DESINFECCIONES

☎ 63 01 55

BERA

SAROB
okindegia



SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - **BERA**

Gure Txokoak 'Bera-Zizurkil' harremanei hasiera eman die

Asteburu honetan Zizurkilgo gaztetxoak etorriko dira Berara

JOXEMANUEL IRIGOIEN

Zizurkil eta Bera arteko harremanak sendotzeko helburuarekin, urte osoko plana prestatua du Gure Txokoak. Plan horren arabera, adin guzietako taldeak jarri nahi dira harremanetan, ez bakarrik gazteak.

Lehenik gaztetxoak

Sei, zazpi eta zortzigarren kurtsoetako ikasleak etorriko dira larunbat honetan asteburua pasatzera. Larunbata eta igandean aktibitate pila izanen dituzte (antzerkia, musika, ur-jokuak, elkartasun bazkariak...) eta guzia antolatzen Berako hiru ikastetxeetako Guraso Elkaratek parte hartu dute. Urrian bisita bueltatzeko txanda etorriko zaie Berakoei eta bitartean, bertzelako aktibitateak ere burutuko dira Gure Txokoatik abisatu dutenez.



Sokatira taldeko neskek iaz bezala aurten ere txapeldun izateko bidea hartu dute. Finala hilabete honen 26an jokatuko dute Berriozarren.

Eskararen Udal Ordenantzak

Berriki Bortzirietako Euskara Mankomunitateak euskararen udal ordenantzak behin-behinekoz onartu ditu eta, Berako Euskara Batzordekoek bidalitako ohar baten bitartez adierazten dutenez, erabaki horren berri Bera-tarrei zabaltzeko asmoa dute.

Ordenantzaren helburua 'euskara egoera progresiboki egoera normalizatu batera eramatea' omen da, 'batez ere udal administrazioari dagokionean'.

Aipatu behar da zentzu honetan, maiatzaren 24ko udal batzarrean Herrialdek eta Eak ordenantzari zerbait alegazio aurkeztea proposatu zutela, baina talde bakoitzak aurkeztutako proposamenak ez ziren onartuak izan.

Zaborte giko ur-zikinak

Duela hilabete batzuk Intzolako erreka zaborte giko ur-zikinez kutsatzeko arrisku bizian zegoela jakinarazi ziguten Zabor Makomunitateak.

Geroztik, antza denez, soluzioa bilatu zaio arazoari, eta horrela, zaborte-

gian sortzen den ura bildu eta Beran eginen den depuradorara ekarriko dira. Egiten ari diren proiektuaren arabera, tuberia Usategietako lepotik pasatuz Itzea aldera ekarriko da, tartean hiru kilometroko bidea eginez.

TXOKOAK OSTATUA

- × Eguneko menua
- × Asteburutan, kaxuelak eta karta
- × Gosari, bazkari eta afariak aintzinetik eskatuta
- × Pintxoan espezialduak × Gazte giroa

Tfnoa: 630286, Altzate • **BERA**



- ☞ KRISTALAK
- ☞ PORTALAK
- ☞ ESKALERAK

Tfnoa: 630557 - **BERA**



ASEGURO OROKORRAK

Itzea, 4 - **BERA** - Tfnoa: 63-07-63

ZALAIN JATETXEA

Eguneko menua eta karta

Boda eta banketeak ematen dira

Zalain auzoa. Tfnoa: 63 11 06 **BERA**

LESAKA

Beti Gaztek antolatutako bertso jaialdia, ekainaren 19an


Luis Olaetxea, «Barraka», Josetxo Iantzi eta Dionisio Mujika omenduko dira, bidenabar

AITOR AROZENA

Beti Gazte elkartearen egoitzan moldaketak egiteko dirua lortzeko bertso jaialdia antolatu dute hilaren 19an, gaueko 10'30etatik aintzinerara. Frontoian, Joxe Lizaso, Joxe Luis Gorrotxategi, Andoni Egaña, Xabier Euskitze, Manolo Arozena eta Bittor Elizagoien arituko dira bertso kantari. Gai-jartzailea berri, Iñaki Perurena harri-jasotzeilea eta ETBko aurkezlea izanen da.

Lehengo bertsolariei omenaldia

Bertsosaioren tarte batean omenaldia eskeiniko zaie hainbat urtez bertsoan eta bertso mundua bultzatzen aritu diren Maurizio Mitxelena «Barraka», Luis Olaetxea «Makukoborda», Josetxo Iantzi eta Dionisio Mujika herriko bertsolariei.



Akordeolari Bandak lehen saria eskuratu zuen Pariseko 60. Nazioarteko lehiaketan (Excelence mailan) Salvador Madariagaren zuzendaritzapean. Datorren denboraldian ohorezko mailan arituko dira. Bertan Lesaka, Bera, Arantza eta Etxalarko akordeolariak jotzen dute

Xabier Igoa eta J. Carlos Pikabea irabazle, Sanferminetarako azal eta kartel lehiaketan

Ezagunak dira dagoeneko aurtien Sanferminetako programaren portadan eta kartelan agertuko diren lanak. Portadetan, Xabier Igoa Alegria gazteak irabazi du lehen saria (35.000 pzta) eta Javier Igoak bigarrena (25.000

pzta). Lehen lana programaren azalean eta bigarrena gibeletako aldean agertuko dira. Karteletan, Juan Carlos Pikabeak egindako lanak eskuratu du lehen saria (35.000 pzta) eta Garbiñe Larralde bigarrena (15.000).

W ttipi-flash

Osasunbideako langile berriak euskaldunak izatea eta orain daudenei euskaraz ikasteko errextasunak ematea eskatu du ahobatez udalak, inguruko hainbat herritan bezalaxe.

Jubilatuena Anaitasun besta ospatu da pasa den larunbat honetan CAN-en eskutik. Urrezko eztaiak ospatzen dutenak omentzeaz gain, txistulariak, dantzariak, meza, herri bazkaria frontoian, dantzaldia eta Nagore anaiak joteroak aditzeko aukera izan zuten.

Euskalerriko eskolarteko bertsolari gaztetxoena finala burutu zen herrian. 14 eta 18 urte arteko mailan Igor Elortza txapeldunaren gibeletik Estitxu Arozena lesakarra gelditu zen.

ONIN Agentzia

Albistur 53, 637359 - LESAKA

- Aseguruak eta kontabilitatea
- Errenta eta IVA deklarazioak
- Eskrituren likidazioa
- Edozein aferetarako ofizina
- Zunzarren-en kolaboratzaileak



bitxikeriak • opariak • eskulangintza

XATURETXEA FONDA

Tfnoa.: 63 70 27 LESAKA

ARRATZUBI ardotegia

Tfnoa.: 63 72 79
Bittiria karrika - LESAKA

IRUBIDE OSTATUA ERRETEGIA

Tfnoa.: 63 71 27 LESAKA

ARRANO



OSTATUA
Legarra - LESAKA

Oinarriko kirola indartu nahi da


Horretarako, Bidasoa KulTur zerbitzuarekin akordioa sinatu du Udalak

ANABEL eta ALBERTO

Udalak akordio bat sinatu du, berriki jaio den Bidasoa KulTur Zerbitzuarekin. Udalak 107.000 pezeta ordainduko ditio talde honi, Etxalarren kirola indartu dezan. Taldearen lana, oinarriko edo baseko kirola indartzea izanen da, batez ere.

Motocross zirkuitoa

Orain dela aste batzuk, zirkuitu bat egiteko baimena eskatu zioten Udalari, motocrosseko motoak dituzten herriko gazteek. Zirkuitua egiteko, Usumiatseko parajea aukeratu zuten gazte hauek. Paraje hartan bizi direnek bere kexuak Udalari azaldu ba-



Lehenbiziko komunioa maiatzaren 30ean egin dute haurrek. Elkarrekin komunioa eta, ondotik, hamaiketako ttiki bat ere elkarrekin egin zuten zentroan, haurrek eta beren gurasoek

ziziozten ere, Udalak zirkuitua egiteko baimena eman zuen, baldintza batzuk jarritz. Orain, zirkuitua egiteko egun batzuk falta direnean, Ursumia-

tseko inguruan bizi direnek Iruñera joko dutela erran dute.

Haurren Eguna

Udaberriko kultur Egu-

nen azkenekoa ekainaren 20a izanen da. Egile eta partaide nagusiak herriko haurrak izanen ditugu, Ipuin Lehiaketa, eskulanen erakusketa, plazako bazkari, eta arratsaldeko antzerki saioan. Dena den, ikusle eta entzulerik ere behar dute, beren saiakera estimatzekoa dela adierazi behar baitiegu ttikiei.

Bazkaleku berriak

Orainbeta aldean prestatzen ari diren bazkaleku berri lanak aski aintzinera doaz. Zer erranik ez, lehenbiziko bazka emanaldia aurten probexten ahal izanen dela, noski. Paga-mentetarako agindutako diru laguntza ematen ari da dagoeneko Gobernua.

Dene

LENTZERIA
MERTZERIA
Tfnoa.: 62 75 14

Beheko Plaza 8, LESAKA



Lore eta landareak

Frain auzoa Tfnoa: 63 78 26
LESAKA

ZIZKA OSTATUA

Martxa eta mozkor saltsa

Altzate 28 - BERA

EROSLE
LESAKA

Kalitate-prezio arteko
orekarik hoberena

Frexkuena
zugandik
hurbilago

Bittiria 67 - Tfnoa: 637264

KOXXKONTA



Sagardoa
botiletan
salgai

Deitu
erreserbak
egiteko

Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 - LESAKA



Komuniotako
erreportaiak
argazkiak eta
bideoa


Tfnoa.: 58 01 55 - Santiago 40
ELIZONDO

Eta orain, zure
koloretako argazkiak
ORDU BATEZ
ERREBELATUAK
ditugu

IGANTZI

Biltoki elkartean lapurketa berri bat

Oraingo honetan, 45.000 pezeta ebatsi zituzten



Hauteskundeak normaltasunez pasatu ziren bertze batez ere. Behar bada emaitzak dira zer pentsaturik ematen dutenak



Ekaina, ikastaro bukaera izanik, irtenaldiak egiteko hilabete aproposa da. Eskolakoak Hondarribian pasa zituzten hiru egun

OSKAR TXOPERENA

Urte batzuk pasatu dira Biltoki elkartean azkene-ko lapurketa gertatu zene- tik, diru kutxa berria para- tu zenetik hain zuzen. Bai- na denborak gero eta lapur

prestatuagoak ekartzen ditu nonbait, joan den astean Biltokin sartu baitziren bortxazina zirudien ku- txatik dirua ateraz. 45.000 pezeta ebatsi zituzten.

Biltokirekin ari gare-

nez, erran beharra dago atea aldatu egin dela -ez lapu- rrengatik, noski-, oraingoa aunitzez politagoa eta sen- doagoa gelditu da.

Kamineroak aipatu di- gunez, zenbait hilabete pa-

satuko dira Bentako bidea- ren zola moldatu baino le- hen. Bazterretako urbideak egin behar dituzte aintzi- netik eta beharbada ez da eginen Benta eta Sanjuan- go zubiak moldatu arte.

MANOLO TABERNA

Edari Banatzailea

Errefreskoak, Ura,
Ardoak, Likorrak,
Txanpaina

Tfnoa: 63 10 27 - BERA

LANCHAS

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Zurezko zoletan nahi duzuna

Tfnoa: 630735 - BERA Tfnoa: (943) 622305 - IRUN



KATTU

OSTATUA
JATETXEA

- Karta
- Eguneko menua

Matxinbeltzenea, Tfnoa: 62 75 73 • LESAKA



Uste baino jende guttiago herri kirolekoen kontzertuan

300 bat pertsona bakarrik sartu ziren frontoian

MIRARI eta MARTA

Uste baino okerrago ateri zen –irabazien alde- tik, batez ere– lehengo larunbatean herri kirol taldeak antolatutako kontzertua. Herriko ostatueta barrena jende dexente bazebilen ere, espero baino jende guttiago etorri zen, frontoian sartu zirenak kontatuz behinipein: 300 bat pertsona bertzerik ez ziren egon Anje Duhalde, Ametsgaizto eta bertsolariak aditzen. Ondorioz, nahiz eta penaz eta desilusioz erran, zorrak.

Hala ere, aditu dugunez aintzinera segitu behar omen dute, berriz saiatuko

Xabi eta Eduardok ezin izan zuten Bidasoako txapelketa irabazi, finalean 18 eta 12 galdu baitzuten beratarren kontra
MARTA Arg.



omen dira eta hobekiago egiteko asmoz gainera.

Betizua
Mendaurren

Betizu bat omen dabil

Mendaur mendian barre-na. "Adar tente, nahiko haundi, betizu itsusia" topatu duen baten errana. Nahiz eta batzuri ez dion

deus egin, badira bizpahiru aintzinean laisterka baita motoan eskapo ibiliak direnak ere. Kontuz ibili gero.




ATERPE
jaretxea

Tfnoa.: 63 41 79
ARANTZA

BOTXO
ostatua

Tfnoa.: 63 00 52
Zalain auzoa, BERA



Itzea 3, 630786 - BERA

ZURE BIDAIAK, ZEURE NEURRIAN ANTOLATUTAKOAK



ERRO
BIDAIAK

BIDAI
AGENTZIA
G.A.T. 2.015

✕ HERRIAK
✕ MENDIAK
✕ TURISMOA
✕ TREKING eta
BIDAI ALTERNATIBOAK

ADUANNA KALEA, 5
☎ 943 - 615177
☎ 943 - 619489
FAX 943 - 619517
20.300 PRIN

NATUR ETA ESKU TERAPIA

QUIROPRAKTIKA

Sendatzeko modu naturala da. Interesatzen bazaizu deitu telefono bontara:

☎ 45. 16. 42



Inzakardi 3 - 1. A eta B - **DONEZTEBE**

SUNBILLA

II. Mendi Bizikleta ibilaldia, igande honetan

Bertzalde, mus txapelketako erregularitate sariak banatu dira

IXABEL eta JOSUNE

Hilabete honetako 20an ospatuko da Sunbillako Bigarren Mountain-bike edo mendi bizikleta ibilaldia. Nahi duenak parte hartu, egun horretako goizeko 10etara ino apuntatu daiteke Ulibeltzak elkartearen.

Mus txapelketaren erregularitatea

Nahiz eta ekainean mus txapelketa tximista izan, erregularitatearena maiztzean bukatu zen eta bikote hauek atera ziren garaile:

1.- Faustino Mariezkurrena eta Laurentino Otero (txapeldunak).

2.- Mari Karmen Errandonea eta Juana Mari

Sunbillako mus txapelketan lehen hiru postuetan klasifikatutako hiru bikoteak, pozik beraien sariekin
IXABEL Arg.



Agirre.

3.- Rakel Urtxegi eta Ana Mari Saldias.

Bakoitzak trofeo bana eramane zuten.

Mendaurko eguna

Ekainaren 6an Mendaur eguna izandu zen. Nahiz

eta denborak asko ez lagundu jende franko igo zen. Urtero bezala egun honetan, udaletxeak bere besta ospatu zuen, Arretxekeo-bordako baserrian bazkalduz. Erran behar da giroa apal xamarra izandu zela.

Herri kirolak

Nafarroako sokatira txapelketan, 640 kilotik behitiko kategorian, Sunbillako taldeak bigarren postua lortu zuen, Amaiurko taldea garaile ateriz.



SANTAMARIA

Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneko menua eta karta

Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE

LABAIENGO OSTATUA

Pentsio osoa

Sukaldaria Julieta andrea

Tfnoa: 450055 - LABAIEN

IRAGARKI HAU
5.400 ETXETAN
SARTU DA

ZUREA ERE SARTUKO DA
PUBLIZITATERAKO
ttipi-ttapa ERABILIZ GERO



OTORDUAK • LOGELAK
Tfnoa: 450793

ZURE OSASUNA ETA EDERTASUNAREN ZERBITZURA

Osasun fisikoa eta sikikoa
tratamendu naturalekin


...

Bizkarrezurreko arazoak

...

Zelulitisa eta loditasunaren
kontrako tratamendua

...



Jean Paul Bouchet
Doktorea

Inzakardi 3 - 1. A eta B • 45 16 42 • DONEZTEBE

Udal idazkariaren afera, Nafarroako Parlamentuan

Giza Eskubideen Batzordearen aintzinean solastu zuen Ana Fraukak

BERTIZARANA

"Alkate eta alkateordearen eskutik jasotzen duen bidegabeko tratua salatzeke" agertu zen Ana Frauka idazkaria Nafarroako Parlamentuaren Giza Eskubideen Batzordearen aintzinean, hilaren 9an.


Talde politikoek, alkatearen eritzia aditzeko, hau ere parlamentura joan dedila eskatuko dute, bi aldeak entzun eta gero, arazo honi konponbide bat eman asmoz.

Idazkariaren ustez, *"komunalen aferarengatik sortzen da arazo guztia, alkatea hauteskundeetara*

presentatzeko arrazoi nagusia hori izan baitzen".

Bertzalde, Bertizaranako bizilagunak langile honen aldeko firma bilketa burutu ondoren, idatzia presentatu zioten Nafarroako Gobernuako lehendakari eta lehendakariordeari (Juan Cruz Alli eta Miguel Sanz) eta Parlamentuko lehendakaria den Javier Otanori. Idatzi honetan, Anak jaso duen tratua salatzen dute.

Kontutan hartu behar da Ana Fraukak hamar urte daramazkila idazkari moduan eta azken legislatura honetan bi aldiz ingresatu behar izan dutela nerbioen arazoengatik.



Ana Frauka Nafarroako Parlamentuaren aintzinean

IBARROLA

HAURRENDAKO ARROPA - MERTZERIA

Parrokia 6, Tfnoa: 45 04 63 - DONEZTEBE

Nerea *Oinetakoak*
San Miguel 2, DONEZTEBE



TELLETXEA
MOBLEAK

Moble erakusketa haundia

- ☐ Edozein klase eta neurriko altzariak egiten dtugu. Fabrikanteak gara.
- ☐ Haritz, gereziendo, gaztainondo eta pinuzkoak.
- ☐ Armario enpotratuak.
- ☐ Tresillo eta tapizerietan aukera zabala
- ☐ Ordaintzeko errextasunak eta zure erosketengatik opari ona eramane duzu

Rosa Seminario z/g Tfnoa: 45 02 58 - DONEZTEBE

DONEZTEBE

Pisgina uztailaren 5ean idekiko da

Uda denboraldiko bonoak udaletxean eros daitezke dagoeneko

TXEMA ALDABE

Bertan egoteko ordutegia goizeko 11etatik atsaldeko 8ak arte izanen da. Udaldia edo pisginaren denboraldia 93-94 ikasturtea hasierarekin batera bukatuko da. Urtero bezala denboraldiko bonoak erosten ahal dira udaletxean eta prezioak hauek dira: 14 urtetik behitikoentzat 1.700 pzta., 14tik 18 urtetarainokoentzat 3.500 eta 18tik goitikoentzat 4.800 pzta. Eguneko prezioak berriz, 4 urte arte 100 pzta (hemengo eskolan ikasten ari direnentzat debalde), 14 eta 18 urte artekoak 200 pzta eta 18 baino



Argazki edo erretrato zaharrekin erakusketa bat egin nahi da Jubilatuen xokoan. Horretarako argazkiak nahi dituzte eta etxean baldin badituzu bertara eraman. Arg.: EZKALOK utzia

gehiago dutenentzat 300 pzta.

□ **Eliza atarian** Caja Rural izan den lekua egin ezkerotik zakor mukuru

bat dago. Ingurukoak kejo daude eta zaborra oraindik han bertan egotearen arrazoia Udala eta bajera egi-learen haserrea omen da.

W ttipi-flash

- **Kirol mailan** udalak emandako diru laguntzak: Errekari 599.604 pzta. Eskubalo, txirringularitza, saskibalo, cross eta Mila modalitateengatik aurkeztutako aurrekontua: 1.427.629. Mendaurre esku pilotari 183.960 pzta-tako laguntza (aurkeztutako kontua 438.000) eta laxo elkartari 146.328 pzta (presupuesto 348.400 pzta).
- **Nekazariendako** dohaneko kurtzilloak burutuko dira Diputazioak Oteizan duen etxean. Informazioa 278011 tfnoan.



Udako arropa
koloretsuak

San Migel auzoa 27,
45 08 83 - DONEZTEBE



- ❖ Ileapaindegirako ordua eskatu
- ❖ Solarium-a
- ❖ kalitateko parfumeak
- ❖ Bitxitegi fina

San Miguel, 450922 - DONEZTEBE



Ameztia karrika 10
Tfnoa: 45 01 36
DONEZTEBE

AGESTA

ILEAPAINDEGIA ETA ESTETIKA

- ▷ Aurpegirako eta gorputzerako tratamenduak
- ▷ Makilaia
- ▷ Depilazioa: Argizari hotza eta beroarekin, elektrikoa
- ▷ Manikura, pedikura (kalloak, gogortasunak)
- ▷ Masaia: Partziala edo osoa.
- ▷ Elektroeskultura: (zelulitisa, barizak, hanketan pisua, zirkulazio txarra, likidoen erretentzioa)
- ▷ Solarium-a
- ▷ Medikatuak kontrolatutako tratamenduak Donostian.

Eskatu **EGUNA** eta **ORDUA**

Jende guttiago baina giro ona Trinitate Egunean

Hauteskundetan, berriz, parekatsu gelditu ziren EA eta HB

IBAN ISASI

Aurreko urteetan baino jende guttiago egon zen, hauteskundeengatik seguraski, baina giro ona nagusitu zen ekainaren 6an ospatutako Trinitate egunean. Goizean eguraldi txarra egon arren, arratsalderako atertu zuen. Horrela, urtegiko bazkarian ez zen girorik faltatu eta arratsalde eta gauean ezta ere Izotz taldeak emandako dantzaldian. Mendauroko ermitara ere hurbildu zen jendea, beti bezala.

Iturengo plaza duela urte batzuk. Agian Trinitate Eguna izanen zen, nork daki. Baina ikusten al duzue zer nolako norria tzarra?
Arg.: EZKALOk utzia



Hurrengoak bestak ditugu, sanferminen ondotik,

beraz animo segituan dotoz eta.

Hauteskundeetan EA eta HB parean

Estatu espainiarreko kongresu eta senaturako bozketetan hurrengo emaitzak izan ziren, kontutan harturik % 26,90ak ez zuela botorik eman.

Eak 107 botu lortu zituen (1989an 117), HBk 105 (1989an 63), PP-UPNk 33 (1989an 40) PSNk 26 (1989an 15), IUk 1 (1989an bakar bat ere ez) eta EAJk 2 lortu zituen (1989an 16).

ZUBIETA

Oraingoan, berri ona eta berri txarra

JUAINAS

Berri ona!!

Udalak euskararen normalizazioa bultzatu asmoz udal ordenantzak onartu ditu. Hemendik aurrera pausoz pauso guziekin euskaraz arituko da. Ez da bapateko gauza izanen, poliki gauzatzen den zer-bait baizik. Hasieran modu onean, era apalez eskatuko da... dugun eskubidea bete dezatela, epe bat pasata nahitaezkoa bihurtzeko.

Biltzen ari dira baita ere,

Osasunbideak berea egin dezan osasun langileen euskeratze eskakizunak, hobe esanda, haiek prest daudela eta Osasunbideak eman diezaiela aukera.

Berri txarra!!

Zerbitzu mankomunitatea aurrera baldin badoa ere, Zubietan eta beste herrietan atzerapausuak ematen dira noizbehinka. Zabor biltzailea keju da gero eta "egon-behar-ez-diren" ugariago agertzen direlako kontenedoretan.

Burniak, urtean pare bat



Kontenedoretan ezin da edozer gauza bota

ARTXIBOA

aldiz biltzen badira ez dago normaletara ateratzerik eta pilaka gutxiago. Azienda hilak txikiak baldin badira lurperatu daitezke edota haundiak izanda Donezteben mataderiarako irekia

dagoen zulora bota. Kontenedoretara? Inoiz!

Eta obra zaborrak uholde bazterretara, are gutxiago. Alkate berak markatuko du tokia eta baldintzak, kondizionalek alegia.

GOIZUETA

Berrikuntzak Umore Ona dantza taldean

Entsaiotarako lokala prestatu dute eta dantza berriak ikasteari ekin diote

ESTEBAN AROZENA

Azken hilabete hauetan garrantzi haundiko berrikuntzak ikus daitezke Umore Ona dantza taldearen barrenean, elkartearen atal hau berpiztea eta hobetzea izanik aldaketa hauen helburua.

Lehen pauso bezala, dantzariak, gurasoak eta zaletuak elkartzek dituen komisiobat osatu zen, bere esku utziz taldearen funtzionamendua. Dena den, Umore Onaren babespean segitzen dutenez, entsaiotarako erabiliko den lokal eder bat prestatu die elkar-teak, orain arte baino askoz egoera erosoagoan aurki



Umore Ona dantza taldeak 13 emanaldi eman zituen iaz

daitezen dantzariak hemendik aurrera.

Aipaturiko hauek gutxi balira bezala, beste aldaketa bati ere ekin diote Umore Onakoek: dantza

berriak ikasteari. Donostiako «Trebeska» talde ospetsuarekin dituzten harremanei esker, orain artean erabiltzen duten errepertorioa zabaltzeko auke-

ra ezin hobea eskeini zaie goizuetarrei eta dirudienez, ohizko Amabirjin eguneko saioan herritar guztiek ikusi ahal izango dituzte berrikuntza hauek. Ez dago esan beharrik noski, dantza berriek jantzi berriak eskatzen dituztela eta horretan ere saiatu dira komisiokoak, dagoeneko ia prest baitaude horretarako behar diren arropak.

Adin guztietako 50 neska-mutilek hornitzen duten Umore Ona talde honek 13 emanaldi eskeini zituen iaz, hauetatik hamaika herritik kanpo. Prebisioak betetzen badira, aurtenera hurbilduko omen dira kopuru horretara.

ARESO

Kultur egunak, hilaren 26 eta 27an

JUANA MARI SAIZAR

Hilaren 26 eta 27an burutuko dira Aresoko Kultur Egunak, honako egitarau honekin:

Larunbata 26, arratsaldean umeentzako jokuak eta 10etan zine emanaldia. **Igandean (27)**, goizeko 9'30etan txalaparta, 10etan meza nagusia, 11etan hamaiketakoa eta taloak, 11'30etan eskolako umeen antzerkia, 12etan pilota partiduak eta 1etan Rufino

Iraolaren hitzaldia: «*Bertsolaritza eta umorea*», Lazkao-txiki bertsolariari buruz egin den azken lana. 2'30etan bertso bazkaria, arratsaldeko 6etan Irurtzongo dantzariak, 7etan sokatira, Areso eta Uitziren arteko norgehiagoka eta 7'30etan dantzaldia.

Lorategia zaintzen

Guraso elkar-teak, terrene bat prest jarri du eskola ondoan, lorategi bezala ibiltzeko. Pinu enano ba-



Aurtenera Komunioa lehen aldiz hartu duten umeak

JUANA M^a

tzuek aldatu dituzte eta umeen lana kolorea ematea izango da, lore ezberdinak landatuz ondoan.

Irratirako logotipo lehiaketa zabalik

Hilaren 30a baino lehen aurkeztu beharko dira lanak

JOSEBA AZPIROZ

Leitzako irratia "logotipoa" asmatzeko lehiaketa baten deialdia zabaldu da. Bakoitzak nahi haina ikur edo logotipo aurkez dezake. Ikur bakoitza, paperezberdinean margotua eta 7x7 eta 12x12ren tarteko neurriekin aurkeztu beharko dira. Marrazkiak txuribeltzean egiten dira, eta barnean, egileak proposatzen duen irratia izena agertuko da. Proposamenak, hilaren 30a baino lehen aurkeztu behar dira. Irratiaren udal batzordeak erabakiko du zein den logotipo irabazlea eta irratia izena aukeratu du. Logotipo irabazleak 25.000 pztako saria izanen du.

Literatur lehiaketa

Hilaren zehar, eskolako 3. eta 8. mailen arteko ikasleek, literatur lehiaketa bat izango dute. Ikasle bakoitzak orrialde bat gehienez idatzi ahal izango du, herriko pestak gaia izanen delarik. Irakasle bakoitzak bere gelako hiru lan aukeratu ditu eta hauetatik, maila bakoitzeko lan bat aukera-



Aurrera futbol taldeak bukatutzat eman du aurtengo denboraldia. Ligan erdikaldean bukatu zuen eta ondorengo Federazio Kopan ere ez zuen gauza haundirik lortu

ARTXIBO Argazkia

tuko da (denetara 6). Lan hauek Plazaola aldizkarian azalduko dira eta egileak, Umeen egunean, hauen ordezkari izango dira, Korporazio gaztea osatuz. Lan guzien erakusketa ere egingo da liburutegian.

Lorenzo Zubiturrek

...15 gazteei hargin ofizioa erakusteko Tipun daukan pabeloia legeztatze-ko eskatu dio Udalarari. Alkatetean erantzun dio, oso interesgarria ikusten duela ideia hori baino legez aurkakoa izango litzatekeela pabeloia legeztatzea eta Landako zo-

nalde industrialak izango dela lekuri aproposena horrelako lantoki bat jartzeko. Zubiturrek nahi ta nahiez bete beharreko baldintza bezela jartzen du eraikiaren legeztatzea ideiarekin aurrera jarraitu eta gazte hoiekin lanean hasteko, 15 lanpostu herrirako galtzea alkatearen bizkar botatzen duelarik.

☐ **Bake epailearen** kargua eskuratzeko interesaturik egonez gero, hilaren 24ko eguerdiko hamabiak baino lehen udal bulegoetan izena eman behar da.

W ttipi-flash

- ☐ **Gorritaran** auzokoak, hilaren 27an, San Pedro dela eta, Auzoko Eguna ospatuko dute. 10,30etan meza izango dute, 11tan herri kirolak, ordu bietan bazkaria, 5etan mus txapelketa eta 8,30etan VII. Txintxurrin txapelketa. 7etatik 12ak arte, musika. Atsedenean, txokolatea banatuko da dohainik.
- ☐ **Aizanen** egun berean, goizeko 9etan "tiro al plato" saio bat izango da.
- ☐ **Euskarazko** adarreko 8. mailako 34 ikasleak, 14tik 19ra Lloret del Mar-era joango dira bi irakasleekin. Erderazko 9 ikasleak berri, 24tik 30era, Galizara joango dira guraso batzuekin.
- ☐ **Eskolako** Kontseilu buruak eta Guraso elkar- teak eskaturik, alkatetzak eskolako parkean iturri bat jartzea onartu du.
- ☐ **Artzaiek** eta Udala elkarrekin hitz egin ondoren adostasun batera ailegatu dira eta horren ondorioz, ahariak menditik erretiratzeko denbora bateko epea mantenduko da, hau da, uztaren 15etik aurreraren 15a bitarte.

SAGASTI Jatetxea

Bokadilo goxoak eta paregabeko bazkariak

Tfnoa: 610637 - LEITZA

ADUR TABERNA

Pintxoak, kaxuelak eta bokatak

Tfnoa: 610864 • LEITZA

IRAGARKI HAU 5.400 ETXETAN
SARTU DA
ZUREA ERE SARTUKO DA
PUBLIZITATERAKO
ttipi-ttapa ERABILIZ GERO

BAZTAN

Behi eta azienden saneamendu kanpaina egin da

Baztango aziendak hagitz sano daudela erran daiteke, banaz bertze

J.M.I.

Baztanen azienden saneamendu kanpaina egin da behi eta ardietan. Behietan 603 esplotazio saneatu dira, orotara 8.394 behi buru. Bruzelosis eta perineumonia kasurik ez da eman, baina hiru behi hiru ikuilu ezberdinetakoak tuberkulosisarekin eta bi behi leukosis. 732 artalde ere begiratu da eta ez da eritasunik harrapatu.

Osasunbidea euskaldunduz

Osasunbideako langileak euskalduntzea eskatzen zuen idatzia onartu zen, alkatearen kalitatezko bo- toarengatik.

UBkoak aurka botatu zuten, "euskara nahitaezko ez lukela izan behar" erranez. HB eta EAK alde botatu zuten eta PSOEko ordezkariak ez zuen botorik eman.

Piszinak adjudikazioa

Elizondoko piszinak (sarrera eta ostatu-kafetegiaren esplotazioa), 2 tenporadatarako Jose Luis Dussaubat-i eman zaio, milioi bat pezeta ordainduz, denboraldi bakoitzerako.



Iruritako Raimundo Dorregarai intsumisioa epaituko dute hilaren 17an. Aitor Ruiz de Larrinagari berriz, urte beteko kartzela zigorra ezarri diote. Elizondoko intsumisioaren aldeko manifestazioa egin zen.

W ttipi-flash

- ❑ Baztango **Musika eskolari** 2.626.554 pezetako dirulaguntza eman dio Nafarroako gobernuak.
- ❑ **Emakumeendako II.** pala txapelketaren finalerdiak eta finala ekainaren 27an egingen dira Elizondoko frontoian.
- ❑ **Braulio Iriarte** karrika moztu egin dute, uren saneamendua egiteko eta atzeko aldetik ibili behar-ko da, hilabete batetik hiru hilabete bitarte.

San Juan eta San Pedro bestak Arizkunen eta Erratzun

Arizkunoak hilaren 23an (asteazkena) hasiko dira bestak, eguerdian txopo goratzea eta gauean sorgin erretzearekin. San Juan egunean bertso saioa izanen da aipagarriena. Ortzileria asto eguna izen- datu dute. Eguerdian zikro jatea eta goizaldean sardin jatea. Larunbata haurrei eskeinitako eguna da eta igandean laxo partidoa jo- katuko da Lamiarritan.

Dantzaldiak, Josetxo, Al- men eta Anker taldeen es- kutik izanen dira, eta des- kantso guzietan mutil dan- tzak.

Erratzun, bestak 28an hasiko dira ezkil jotzea eta kalejirarekin. San Pedro egunean, eguerdiko meza eta dantzaz gain, arratsal- dean pilota partiduak eta bertso saioa izanen dira.

Asteazkenean, zikro jatea eta pilota partiduak.

Ortzegunean deskantsoa eta ortzilerian haurren eguna, jokoak eta txokolatadare- kin. Larunbat eguerdian, crossa izanen da eta ats- aldean Erramun Martikore- naren kantaldia. Igandean azkenik, arratsaldean herri kirolak eta sokatira, Ultza- ma, Basaburua eta Erra- tzuko taldeen artean. Dan- tzaldiak, Paraiso, Saioa eta Joxe Angelek eskeini- takoak izanen dira.

IPINGI

ZATOZ ETA IKUSI

Santiago 88, Tfnoa: 580939
ELIZONDO

Udako arropak • indiar estilokoak
moda-modako bainu jantziak • Bitxiak

KASINO OSTATUA

Jaime Urrutia 10 - ELIZONDO

632 bizilagun gaude Basaburua-Baztanen

Belarra ateratzeko urte ona bada ere, denborak ez du laguntzen

PABLO MENDIBURU

Hauteskundeak eta Almandozko bestak pasatu ondoren lasaitasuna dugu hemen. Ale honetan, hemengo ohitura batzuk aipatuko ditut. Maiatzeko azken egandean Zigan prozesio bat egin zen, Amabirjinaren ohorez eta oraindik mantentzen da Bestaberri eguneko prozesioa, hau da, etxeko lehioak jantzi, herriko bideak txukundu, etabar... Bertze ohitura batek dioenez, San Primo egunean (ekainaren 9an) euria eginez gero, berrogei egunez euria egiten omen du. Bota zituenak kontutan hartuz, ikusi beharko da zer gertatzen den.



Zigan, neska gazteak aingeruz jantziak amabirjinari loreak eskeintzen dizkiote maiatzeko igande guzitan PABLO

Nekazariak lanean

Aurten belarra ateratzeko urte ona omen da, baina zoritxarrez, denborak laguntzen ez duelako, nekazariak gaizki dabilta belarrak etxean sartzen.

Basaburuan 632

pertsona bizi gara Baztango azken eroldaren arabera: Almandozen 211, Anizen 65, Berroetan 129 eta Zigan 227. Almandoz izan da gora egin duena, iaz bortz haur sortu baitziren.

ttipi-flash

- ❑ **Nafarroako** gobernuko Nekazaritza, Abeltzantza eta Mendi sailari 50 Hektarea herri lur eman dizkio udalak, Indartea eta Otxondoko eremuetan, bertan birplantaketa batzuk egin daitezten.
- ❑ **Herriko alkate** guziei, uda heldu dela eta, uraren potabilitatea zain dezaten eskatu zaie.
- ❑ **Elixabet Santesteban**, Kirol koordinatzaileari bertze hiru hilabeteko berritu zaio kontratua.
- ❑ **Lekarotzko** piszinaren mantenimendua, aurtengoan Jose Bielak eraman du.



KIWI BAZTAN, S. A.
FRUTONDOAK ETA LANDARE ORNAMENTALEN
ZUZENeko SALMENTA

MINDEGIA eta BULEGOAK:

Sutegia Etxea
31795 LEKAROTZ

☎ (948) 58 11 01

Fax-a: (948) 58 11 01

ERRATZU OKINDEGIA

zure eguneroko ogia

453168 - ERRATZU

M^{te} Dolores Mirana **TOPOGRAFIA**

NEURKETAK • PLANOAK



Lur neurketak
Luberriak

Plantazioak, etab.

Santiago 68, 3. Esk. ☎ 580143 • ELIZONDO

ANGEL TRANTXE ELEKTRIZISTA

- ☛ Instalazioak, berrikuntzak eta moldaketak
- ☛ Suteen detekzioa
- ☛ Su-hitzalgailuak edo extintoreak

Giltxaurdi 16 - 1. ezk. ☎ 452246 - **ELIZONDO**

Santiago 71. ☎ 580166

TALLERES ZALDAIN ELIZONDO

► Aluminio eta burdin aroztegia
► Toldoen instalazioa



ZURE EZKONTZARAKO

FOTO eta BIDEO Erreportai on bat

ELIZONDO ☎ 580491

DONEZTEBE ☎ 450364

MARKOEN TAILERRA eta zure
karretek ORDU BATEZ REBELATZEN
DITUGU[®] FUJI[®] kalitatearekin.

URDAZUBI

Bestetako errifa

Oraindik sari nagusiak ez dira agertu

ALIZIA OLAIZOLA

Errifaren sari nagusia 10571 zenbakiari tokatu zaio. Zubiondoan salduada; aste bateko bidaia bi lagunendako Torremolinosera. Jabea nor den ez da ezagutzen eta ekainaren 23an bukatzen da epea. Bigarren saria, mendi bizikleta bat, Armua jatetxekoei tokatua, 13725 zenbakia. Hirugarren saria "caja sorpresa" bat, Matxinbordako Maritxuri tokatu zitzaion, 14.968 zenbakia, Angela Barrene-

txeri erosia. Aipatuko dugu, errebestak ez dela jakiten ahal noiz izanen diren, hasiak baitire herrietako bestak. Motocrossa seguraski, uztailaren 4ean izanen da. Segurrago izaten garenean erranen dugu.

Exkursioen garaia

Kurtsoari bukaera ona emateko eskolako haurrak bidaiak egiten dituzte. Tiki-enak Donostian egon ziren hiru egun pasatzen, hondartzarat joanez eta Donostia bisitatuz.



Laugarren mailatik zortzigarreneanokoak Bartzelonan izan dire

□ **Jaunartzeak** ekainaren 13an ospatu ziren. Hamar haur ziren lehenengo jaunartzea egin zutenak: Miren Bengoetxea, Ainara

eta Clemente Suhas, Daniel Elizalde, Luis Bidaurre, Dioni Mujika, Marina Olai-zola, Maribi Otegi, Fani eta Jone Bonnemaison.

ZUGARRAMURDI

256 biztanle aurten

Herria hustutzen ari da pixkanaka

KORO eta MARGARI

1993 urte hunen lehenegindako biztanle erroldak honelako emaitza eman zuen: 136 gizon eta 120 andre, denetara 256 biztanle. Gero eta gutxiago. Etxebizitzak hartzeko arazoak direla, gazteak ezkondu eta kanpora bizitzera gaten direla, herrian gelditzen

direnak seme-alaba bat edo bi gehienez, neskazahar eta mutilzahar gehiegi gelditzen ari direla... beraz ez da harritzeko herria txikitzen gaten bada.

Lehen jaunartzea

Maiatzaren 30ean Kaiet, Miren eta Xabierrek kominiatu zuten lehen aldiz. Meza honetan ere beren urrezko eztaiak ospatu zituzten



Kaiet, Miren eta Xabier lehen jaunartzean

Santiago eta Jeannek (Kaieten aitatxi-amatxik) eta de-

nak batera elizkizun ezin ederragoa atera zen.

ALBARTARITZA S.A.

Aita Donostia 7

Tfnoa: 452111 - Faxe: 580980

ELIZONDO

SAS KAITZ
fontanería
calefacción

Empresa colaboradora de



**Era guztietako instalazioak:
Etxekoak, industrialak...**

Santiago 55 • Tfnoa: 581171 • **ELIZONDO**

Eskolako haurrak, Lapurdiko Haur kantu xapelketan

Bertzalde, Sarako Izarra rugby taldeak 20 urte bete ditu

MIXEL ETA JACQUELINE

Lapurdiko Haur kantu xapelketan parte hartu zuten Sarako eskolakoak, bertze 200 haurren artean. Hiru kantu eskeini zuten; *Xalbadorren heriotzea* (E. Elizalde, K. Barreneche), *Arbasoak* (Martine eta Maider Urbistondo), *Etxea* (talde osoak). Sari berezia eskuratu dute. Ipar eta Hegoaldeko haurkoruen elgarretaratzean parte hartu dute ere. Hor ziren Maule, Baigorri, Donostia eta Senpereko haurrak. Hor, *Geroaz orroitu* (E. Alkat), *Astiria mendian* (M. Pagola) eta *Arbola gainean* (B. Sarasola) kantuak abestu zituzten.



Rugby taldeak 20 urte bete ditu

ARTXIBOA

Sarako Izarrak 20 urte

Mendekoste egunean Sarako Izarra rugby taldeak 20. urtemuga ospatu zuen. Lehengo eta oraiko rugby-zaleek elgarretaratzeko parada ederra ukan zuten. Goizean partida bat jokatu zuten eta aperitifa hartu ondoren zikiri jate baten ingu-

ruan 200 bat kide biltzen ziren Añimainean adiskidetasun osoan. Ospakizun hauek guziak giro alai batean iragan dira. Agian hola urtebetetze ainitzen parada ukanen dugu...

Berri latzgarria

Maiatzaren 31an Joset Ithurria, 40 urteko saratarra gorputz gelditu da ixtripu

baten ondorioz Lizarrietako bidean. Heriotze honek finiki jo gaitu denak eta azken agurraren egiteko izigarritzko jendeketa bildu zen elizan ekainaren 2an. Josetek elkarteetan parte hartu du eta hauen lehen urratsetan beti hor izatu da izan rugby, Axuria mendizale elkartea eta Sarako kantariekin.

MANUEL MARTIN

Barnekalderako dekorazio dendak
Zerbitzu hauek eskeintzen dizkizue


- Era guztietako gortinak, kamilla bolanteak, edredoiak eta maindireak.
- Alfonbrak, bertakoak eta inportaziokoak Nepalekoak, Turkiakoak, Pertiakoak, Txinakoak...

Bertan eziten ditugu produktu guztiak

25 urtetako esperientzia

Bisita gaitzazu

Serapio Mugika 8
Tfnoa: 943-616603
IRUN



Pasajes 3
Tfnoa: 943-511598
ERRENTERIA



ARMUA
Jatetxea

Zugarramurdiko karretera 3. Km
Tfnoa.: 59 9131- URDAZUBI

OSKORRI
LIBURUDENDA

Petrinea Tfnoa.: 592245
ORONOTZ-MUGAIRI

HERRIKO ETXEO EDANTEGIA

Michel eta Kaiten
Guxendia

Tfnoa: 59 54 25 19
64310 SARA



ttipi-ttapa
HAMABOSTEKARIA

5.400 harpidedun
18.500 irakurle

EZKONTZAK

David J. Ainziburu Iturri eta **M^a Rosario Zabala Gonzalez**, Iruña eta Doneztebekoa, maiatzaren 22an.

Manuel Loiarte Santesteban eta **Maria Mitxelena Aleman**, Zubieta eta Iuritakoa, maiatzaren 29an.

Miguel Angel Paz Serrano eta **Amaia Berroeta Igoa**, Iruña eta Lesakakoa, ekainaren 5ean.

Jose M^a Alberdi Beramendi eta **Jaione Azkona Irazoki**, Donostia eta Berakoa, maiatzaren 21ean.

JAIO TZAK

Laura Mendibil Petrirena, Sunbillan, maiatzaren 30ean.

Jon Zozia Eskudero, Goizuetan, maiatzaren 27an.

Sara Olaizola Egurrola, Arizkun, maiatzaren 24ean.

Maialen Camino Elizagoien, Elizondan, ekainaren 2an.

Nahia Barriola Hernandorena, Leitzan, maiatzaren 27an.

Maitane Mariezkurrena Zigan-da, Leitzan, ekainaren 1ean.

Izei Gillenea Iriarte, Beran, maiatzaren 29an.

HERIOTZAK

Joset Ithurria, Saran, maiatzaren 31an, 40 urte.

Juan Erro Arregi, Zugarramurdin, maiatzaren 27an, 59 urte.

Olaia Ortega Mitxelena, Beran, maiatzaren 18an, 6 urte.

Maria Mikeo Muntiano, Beran, maiatzaren 21ean, 85 urte.

Patricia Areas Rojo, Beran, maiatzaren 31an, 87 urte.

Juan Jose Perurena Oiartzabal, Goizuetan, maiatzaren 28an, 73 urte.

Esteban Petrirena Aranburu, Lesakan, ekainaren 4ean, 77 urte.

40 ESTABLEZIMENDU ZURE ZERBITZURA

13 arropa denda, kirol denda bat, optika bat,

2 oihal denda, lentzeria bat, zapata denda bat,

4 kafetegi, inprimategi azkar bat, kristaldegi bat,

**2 banketxe, bulego materiala, argazki denda bat,
dekorazio denda bat, supermerkatu bat,**

aseguro etxe bat, ileapaindegi mixto bat, drogeria bat,

**bidai agentzia bat, PVCKo nahiz zurezko leiho eta ateak,
hizkuntz akademia bat, moketak eta pinturak, etxe saltzaile bat...**

Denetarik gauzarik hoberenak.

Irun erdi-erdian. Parkina eta guzi.

Centro Comercial

**LUIS
MARIANO**
Irun

Javier Ostiz, Doneztebeko Caja Rural-eko Zuzendaria:

CAJA RURAL, modernotasuna eta eraginkortasuna

Gaur egun, caja Rural de Navarra zonalde honetan presentzia gehien duen finantza erakundea da 7 sukurtsalekin: Elizondo, Doneztebe, Lesaka, Sunbilla, Arantza, Etxalar eta Bera.

Modu honetan, Caja Ruralek zerbitzu hurbilago bat eskeintzen dizu, betiko amabilitatea eta eraginkortasunarekin. Produktu eta zerbitzu aurreratuenak, baita edozein gestio egiteko behar duzun laguntza eskeiniz.

Caja Ruralen errentabilitaterik haundiena ateratzea diezaiokezu zure aurrezkiei, produktu ezberdinen bitartez: Libreta Estrella, Kontu Berezia, Aurrezki-Etxebizitza libreta, Epe

Finkorako Inposizioak, Inbertsio fondoak, Letrak, Estatuaren Zorrak eta Bonoak, etab... Eta neurriko soluzioak bakoitzaren beharretarako: etxebizitzak erosteko mailegu hipotekarioak, mailegu pertsonalak, inmozulatuaren eta zirkulantearen finantziaketa enpresa eta negozioak, merkatal deskuentoa, etab...

Bertzalde, zerbitzu eksklusiboak eskeintzen zaizkio bezeroari, hauen bitartez abantaila haundiak eskuratzeko modua izanik: Nomina ordaintzeko zerbitzua, Hirugarren Adinarendako zerbitzu eksklusiboa, Oporretarako Club Rurala, Rural Talde Aseguratzaila, VISA txartelak, kajero automatikoak...

Caja Rural de Navarrak, sukurtsalak zabaltzeko eta berritzeko plangintza sendoa jarraitzen ari da, eta, bezeroen konfiantzan babestuta, Nafarroako finantza erakunderik garrantzitsuenen artean dago.

Doneztebeko Caja Ruralaren egoitza berriaren inaugurazioa dela eta, Javier Ostiz zuzendariarekin solastu dugu.



Javier Ostiz

materialeak eta kokapenak estilo berezi eta moderno berri hori isladatzen du, Caja Rural bertze erakundeetatik ezberdintzen duena.

☐ **Zer bezero motarekin identifikatzen da Caja Rural?**

■ Caja Rural zerbitzu guztiak eskeintzen dituen finantza erakundea da eta bere merkatu naturala, etxeko ekonomiak deitzen diren horietan aurkitzen du (Nominak, nekazari-abeltzainak, pentsionistak, autonomoak...), komertzioa eta zerbitzuak eta PYMES. Sektore hauen zatitza produktu eta zerbitzu eskeintza zabala dugu eta konpetibitate maila altuekin gainera.

☐ **Bukatzeko, desio bat...**

■ Gure zonalde osoa eta Doneztebe bereziki, beraien historia eta kokapenarengatik dagokion lekura iristea. Baita ere, noski, guztioi besta zoriontsuak eskeini, eta egun hauek guztiontzat zoriontasun egunak izatea espero dut.

☐ **Lehen galdera, ia derri-gorrezkoa da; Zer eskeintzen du Caja Rural-ek?**

■ Caja Rural banka berriaren desafia guztiz bereganatu duen erakundea da; margen estuekin lan egiten dugu, gure bezeroek kondizio hobeak izan dezaten. Honeri, zonaldea eta bere beharrak hurbiletik ezagutzen dugula eta gure tratua amalea eta eraginkorra elkartzen badiogu, berezko estiloa duen erakunde bat garelako erran dezakegu.

☐ **Estiloaz solastuz; bulegoa egitan modernoa da...**

■ Bai, horrela da. Bulegoaren ekipamenduak, diseinuak,

Esku pilota: Iraultzaren atarian?

‘Asegarce’ enpresaren sorrerak hankaz goiti jarri du esku pilota profesionalaren mundua

Erran beharrik ez dago azken bolada honetan hankaz gora jarri zaigula esku pilota –profesional mailan batez ere–.

Orain arte zeuden eskema guztiak hautsi egin dira eta denak gauza bera pentsatuko ez badute ere, pilotaren onerako izan omen da. Baina iraultza moduko hau ez da bere gisara sortutakoa, izen nagusi bat baitu honek: Asegarce.



Pilota partiduak telebistatik emititzeak pilotarekiko zaletasuna izugarri berpiztu du

Hasiera batean, publizitate agentzia izanik eta beren kontratuetan publizitateari buruz zegoen hutsuneaz baliatuz, pilotarien kontratu publizitarioak sinatuz hasi zen Asegarce. Partidu gutti batzuk ematen ziren orduan telebistaz, txapelketetakoak gehien bat. Hala ere, laister hasi ziren enpresak eta Asegarceren arteko tirabirak, kontratu publizitario horiek zirela

medio. Duela gutti hildako Iñaki Aseginolazak –denbora hartan arduradun nagusia zenak– mehatxu egin zien enpresei kontratu publizitario horiek errespeta zitzaten, berak pilota enpresa berri bat sortzea nahi ez bazuten behintzat. Beraz, horretara behartu omen zuten azkenean. Handik gutti enpresa berria aurkeztu zuen, pilotari garrantzitsuenak kenduz Pilotaberri, Enpresas Unidas eta Eskulariri: Bergara II, Ben-


goetxea IV, Errandonea I, Arretxe, Maiz II, Salaberria, etab... Galartza IIIak hitz eman bazuen ere, azkenean lehengo enpresan geratzea erabaki zuen. Orain auzitan dago pilotari gehienek kontratu hausketa. Hala ere, Beloki kentzerakoan eman zien Asegarceek jipoirik haundiena enpresa tradizionalei. Pilotari gazteak fitxatzerakoan ere izugarrizko borroka izan da bi aldetatik. Inoiz ez zen azken bi urteetan adina pilotari pasatu

profesionala. Bi azkeneko adibideak, Taberna eta Errandonea II.

Soldata hobeak publizitateari esker

Irabazlerik baldin badago, eta honetaz ez dago dudarik, hau pilotaria bera izan da, bai alde batekoa eta bai bertzekoa. Bikoiztu eta hirukoiztu egin dituzte beren soldatak. Nondik etorri da guzti hau errentabilizatzeko dirua? Telebista eta publizitate. Telebistara ere era-

PILOTARIEK ZER DIOTE?



Iñaxio, ERRANDONEA I
«ASEGARCE»koa

«Asegarcen aunitz hobetu da gure lan egoera, ez ekonomikoki bakarrik, baita pilotarionganako duten errespetua ere»

Bi enpresak ezagutu dituzunez, zein dira zuretzako diferentziarik haundienak?

Egia erran ez dago konparatzerik arras esperientzia ezberdinak bizi izan bait ditut bietan. Asegarcen aunitz hobetu da gure lan egoera, ez ekonomikoki bakarrik, baita pilotarionganako errespetua ere.

Beraz, erran daiteke ez zarela damutu eman duzun pausuz?

Ez, noski. Erran behar da momentu zailak ere pasatu izan ditugula, joan den udan hain zuzen, baina geroztik gauza aunitz gertatu da eta guztiak gure enpresa sendotzeko balio izan dute, zorionez.

Eta etorkizuna nola ikusten duzu?


Gero eta garbiagoa ikusten dut. Bide berriak irekitzen ari zaizkigu eta uste dut gurea dela etorkizuna.

Ohizko enpresetan segitzen duzu, baina positiboa iruditzen al zaizu Asegarcen sorrera?

Denendako izan da positiboa, bai pilotari, pilotazale eta pilota berarentzat ere. Gure enpresetako pilotarien egoera ekonomikoa ere aunitz hobetu da Asegarcen sorrera dela medio.

Zergatik diozu pilotarentzat ere hobea dela?

Ikusi bertzerik ez dago nola berpiztu den pilotarekiko zaletasuna. Orain dela urte batzuk baino aunitzez gehiago solasten da pilotaz, eta hori maila haundi batean telebistari esker. Beharbada, bere alde txarrik ere izan du honek. Pilotariak alde batera eta bertzero banatzeak partiduen maila jeitsi egin du pixka bat, baina hala ere positiboa ikusten dut orohar.



Luis M.ª, RETEGI III
(Ohizko enpresak)

«Asegarcen sorrerarekin pilotariak alde batera eta bertzero banatzeak, partiduen maila jautsi egin du»

man dute beren borroka. Ohizko enpresek ETBekin jarraitzea erabakitzen bazuten, TVEekin sinatu zuen Asegarcen bere kontratua —pilota zabalago baten asmoa erakusten dute, nonbait—. Honek astero partidu bateko bertze ikusteko modua ematen dio pilotazaleari.

Izan da, hala ere, laino goibelik pilotaren gainean azken hilabete hauetan. Tentsioa nabaria da enpresen artean eta tinko jarraitzen dute beren leketan.

Horrek gertakizun latzak ekarri ditu tarteka: Beloki eta Irazolaren arteko bigarren mailako finala, binakako txapelketa bakoitzak bere aldetik jokatzeari, lehenengo mailako banakako txapelketa arriskuan egotea, etab... Azken finean, tradizioa eta imaginazioaren arteko borroka dugu hau, eta denborak erranen du zein izanen den garailea.

Oskar TXOPERENA

Irabazlerik baldin badago, eta honetaz ez dago dudarik, hau pilotaria bera izan da, bai alde batekoa eta bai bertzekoa.



Ekainaren 6ko hauteskundeen ondotik

Abertzale eta ez-abertzaleen arteko aldea inoiz baino ttikiagoa

Azkeneko hauteskundeok aldaketa nabarmenak eragin dituzte gure herriotako mapa politikoan, estatu eremuko alderdien alde batipat.

UPN-PPk 1989koetan galdutako nagusioa berreskuratu egin du, azkeneko urteotako gorako tendentzia azpimarratuz gainera.

HBk, 1989an bezalaxe, zonako bigarren indar politikoa izaten segitzen du, nahiz eta 1991ko udal eta foru hauteskundeetan lortutako emaitzekin konparatuz gero, 40 boto galdu dituen.

EA-EUErendako emaitzat nabarmenki txarrak izan dira. Izan ere, duela bi urte EAK lortutakotik hirutik bat galdu ditu oraingoan EUE-rekin elkartu bada ere, eta zonako alderdi nagusia izatetik hirugarrena izatera pasatu da HBren gibelitik. PSOEk laugarren postuari eutsi ez ezik ia bortzehun gehiago lortu ditu.

EAJren goranzko joera ez da indarrez gauzatu, baina azken lau hauteskundeotan aldiro emaitzak hobetu dituen alderdi bakarra da.





Baztanaldean UPN-PP dugu alderdirik nagusia inolako ezbairik gabe. EA-EUEk 1989an EAK lortutako emaitzak hobetu baditu ere, duela bi urte lortutakoetatik urrun gelditu da eta UPNren botu kopuru erdiekin bigarren indarra izateari eusten badio

ere, hirugarren dagoen PSOEri 48 botuko aldea ateratzen dio soilik. Laugarren HB dugu, azkeneko hauteskundeotako goranzko joerari eutsiz. **Bortzirietan** nagusioa HBren eskutan badago ere, bototan zertxobait behiti egin du. Goiti egin dutenak UPN

eta PSOE dira, bigarren eta hirugarren indar bihurtuz. EA-EUE bigarren indarra izatetik bosgarren izatera pasatu da EAJ-PNVren gibelitik. **Leitzaldean** ere HB da alderdi nagusia eta bigarren dagoen UPN-PPk eskuratu dituen botuen doblearekin gainera.

Egia esan UPN eta EA-EUE-ren artean botu bakarreko aldea baino ez dago UPNren alde. PSOE ere aurreko bi alderdiekin paretsu dabil. **Maierrekan** EA-EUE da alderdi nagusia, duela bi urte lortutako emaitzak hobeak izan arren. Ondotik UPN eta HB.


ALDERDI BAKOITZAREN EBOLUZIOA AZKEN URTEOTAN



EMAITZAK HERRIZ HERRI

Zentsoa 20.933
Abstentzioa %30

**Botuen eboluzioa
azkeneko
hauteskundeekin,
Nafarroako
Parlamenturakoekin,
konparatuz**



	Zentsoa	Abst.	UPN-PP		PSOE		HB		EA-EUE		EAJ-PNV	
			93/VI/6 • 91/V/26		93/VI/6 • 91/V/26		93/VI/6 • 91/V/26		93/VI/6 • 91/V/26		93/VI/6 • 91/V/26	
ARANTZA	610	%26	73	22	53	10	134	202	71	127	108	172
ARESO	243	%31	57	58	21	32	63	75	21	38	0	7
BAZTAN	6.390	%30	1.692	1.977	841	597	640	638	889	1.304	108	27
BEINTZA-LABAIEN	264	%33	81	-	45	-	16	-	21	-	4	-
BERA	2.689	%34	402	289	416	364	393	416	269	500	95	45
BERTIZARANA	510	%30	98	85	85	72	47	33	95	129	12	10
DONAMARIA	293	%28	45	28	48	40	48	66	46	69	10	27
DONEZTEBE	917	%24	200	172	134	132	76	83	183	304	17	31
ELGORRIAGA	150	%27	18	17	20	25	34	33	22	27	12	6
ERATSUN	179	%39	32	8	3	9	23	21	33	64	9	3
ETXALAR	677	%38	147	79	48	55	132	133	62	143	10	15
EZKURRA	212	%40	48	46	28	22	24	32	24	49	2	3
GOIZUETA	860	%35	30	24	25	15	376	407	98	123	4	4
IGANTZI	485	%25	111	72	79	93	80	93	44	89	36	61
ITUREN	383	%27	33	38	26	19	105	89	107	175	2	0
LEITZA	2.427	%31	391	414	180	165	616	544	358	477	37	11
LESAKA	2.236	%29	237	180	213	141	366	379	219	299	475	532
OITZ	135	%39	9	7	3	3	35	32	33	64	2	1
SALDAIA	127	%29	13	-	7	-	20	-	31	-	12	-
SUNBILLA	548	%32	78	57	62	52	77	90	137	202	7	0
URDAZUBI	334	%34	115	92	41	43	21	17	25	33	5	0
URROTZ	167	%29	48	49	8	5	19	16	21	29	10	6
ZUBIETA	290	%42	22	26	32	26	62	51	31	48	6	11
ZUGARRAMURDI	198	%27	55	39	27	24	26	23	3	9	9	12

* (91/V/26) Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak

* (93/VI/6) Espainiako Parlamenturako hauteskundeak

* EA-EUEren zutabeen, 1991ri dagokion datuetan, EAk lortutako emaitzak daude soilik, EErenak kontatu gabe.

ZURE IRAGARKIAK HEMEN AGERTZEKO DEITU 63 11 88 ☎

Etxebizitzak

• **Elizondon** pisu berri-tua salgai, 3 logela, jangela, bainua eta egurrez moblez-tatutako sukaldea. ☎ 581089.

• **Bera** edo **Lesakan** pisu bat erosiko genuke. ☎ 631178 (gauez).

Lana

• **Elizondo** aldean lan egingo nuke, haurrak zain-tzen adibidez. Bestela in-ternu egongo banintz ere lan egingo nuke. ☎ 453294.

• **Leitzako** neska bat naiz eta herriko festetan lan egingo nuke, ahal bada Leiza inguruan. Bi urteko esperientzia daukat. ☎ 510303 Mila.

• **Udarako** sukaldean lan egiteko esperientzidun per-sona serioa behar dugu. ☎ 627519 / 627503.

Salerosketak

• **Akordeoi** ttikia, Vic-toria markakoa salgai. 120 bajo. ☎ 630298.

• **300 pikete** salgai, onak, gaztain eta akaziazkoak. ☎ 510132.

• Lau urteko **aharia** sal-gai Igantzin. ☎ 637026.

• **Renault 5** berdea (NA-8098-L, 35.000 km.) salgai 300.000 pezetatan. ☎ 452363 (1,30-2,30 eta 9,30-10,30).

• Kategoriko **zakurku-meak** salgai, setter ingles arrazakoak. ☎ 514240.

• **KTM 250 cc** motoa salgai. Egoera onean. ☎ 631134.

• **Erremolke** bat salgai, luzera 3'15 m, zabalera 1,54 m. eta altuera 2 metrokoa, nahi izanez gero. ☎ 619761.

• **Sukalde ekonomikoa** frantzea salgai Beran. ☎ 631058.

• **Idazmakina**, Olivetti CT-606 markakoa, estrena-tu gabea salgai. ☎ 580570.

• **Bulegorako** bi mahai, 160 zm.koak eta ordenagai-luarendako 100 zm.ko ge-higarria, eta lau aulki (2 bi-ratzaileak) salgai, guztia oso modu onean. Interesatuak . 631199 ☎ ra deitu (Elsa)

arratsaldetan edo 630856ra goizetan.

Denetarik

• **Eskubaloiko** bi porte-ria eta saskibaloiko saskiak eskuratu nahi genituzke. ☎ 451555 (Malerrekako eus-kalategia).

• **Pisu** bat osatzeko nes-ka bat behar dugu Burlatan. 93ko uztailatik 94ko uztai-lara. Oso ekonomikoa. ☎ 453174 edo 453344.

• **Klase** partikularrak emanen nituzke, Sanfermi-nen ondoren. ☎ 637138.

• **Mendaur** aldeko mendiotan joan deneko 6-7 hilabeteotan ahare arrotz bat dabil. Argibideak. ☎ 451597.

Harremanak

• **Leitzako** Juditheri zo-rionak zure 11. urtebete-tzean (ekainak 10). Zure guraso eta ahizpa Virginiak.

• **Iuritako** Irene Irure-tari saludo bat zure iloba Mirenen partez.

• **Oitzko** Nekaneri: Ea aurtan Baztandarren Biltza-rra egunean sandaliak eta galtza motzak ekarri beha-rrean ongi abrigatua etortzen zaren. "Aixtegiko" Klub de Fanss. AA. JE.

• **Elgorriko** Ainhoari: Saski baloian arras ongi jos-tatzen duzu. Ea berriro ikusten garen. Zuk badaki-zu nor naizen.

• **Leitzako** Iñaki Aldun-tzineri, lehenago jarri nuen baino orain ere jarriko dut: kontuz azkarregi hazten ari zara eta.

• Mesedez ikus laguna. Goiza heltzean zure lagun bat, jo ta ke irabazi arte. Zuretzat su ta gar. Lagun bat.

• **Arantzako** Amaiari: zorionak zure urtebetzean, ekainak 7. Muxu bat. Asier Etxeberria.

• **Zigako** Juan Angel I.ri. Zure ezpain gorri horiek txoratzen naute eta zure ileak eta beak erotzen. Elizondo-ko neska bat.



**GIZONEZKOEN
MODA**

**muñeca
de trapo**

**EMAKUMEZKOEN
MODA**

BIAK, IRUNgo LUIS MARIANON



BORTZIRI

ASISTENTZI TEKNIKORAKO ZERBITZUA

* TB, Bideo, HI-FI eta elektrogailuen konponketa

* Bakarkako, kolektibo edota satelite bidezko antenak ere paratzen ditugu.

Itzea 4, behea - BERA Tfnoa: 63 10 91

Zure nomina helbidera- tzeagatik

- 45 pieza dituen portzelanazko baxera
- 1.000.000 pta.ko aseguro bat
- Eta %7rainoko interesa Superlibretan



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

**DONEZTEBAR GUZIEI
BESTA ONAK
OPA DIZKIZUEGU**



Uda ikastaroak

BARNETEGIAK

Uztaila, Abuztua, Iraila
Maila Guziak + EGA

NON:

HONDARRIBIA
BERA
DONEZTEBE
LEITZA
LESAKA
BIDARRAI

Telefonoak:

(948) 22 22 46 IRUÑEA.
(948) 63 77 96 LESAKA.
(945) 28 89 22 GASTEIZ.





CRISTALERIA VELATE



PARETAN SARTUTAKO ARMAIRUAK

- Kristaleria orokorrean •
 - Barnekaldeen dekorazioa •
 - Bainurako mobleak eta manparak •
 - Pareta ispiluak •
 - Bidriera artistikoak •
- Proiektuak eta aurrekontuak
konpromisorik gabe

DELEGAZIOAK:

ELIZONDO

Pedro Axular karrika, 1

Tfnoa: 58 08 25

IRUÑEA

Villava etorbidea 12 Behea

Tfnoa: 13 20 21

DONEZTEBE

Mercaderes 5

Tfnoa: 45 09 91




JUAN LARREGI

«BITXO»

Santiago karrika 10 • Tfnoa: 580898 • ELIZONDO

**Zure segamakina zaharra hartuko dizugu
honako segamakina berri bat erosteagatik**



**RAPID
AEBI
ALFA
AGRIA**



• Edozein segamakinendako errekanbioak • Berehala kasu egiten dugu •